

XX/2020 FORU DEKRETUA, XXXAREN XX(E)KOA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IKASTETXE PUBLIKO ETA PRIVATU ITUNDUETAN IKASLEAK ONARTZEKO ARAUAK EZARTZEKOA

Zioen azalpena:

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako printzipioen arabera eman zen 31/2007 Foru Dekretua, apirilaren 2koa, unibertsitatez kanpoko ikasketak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituena.

Apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretuaren 2. artikuluan ezartzen zenez, dekretuan xedatutakoa aplikatzeko, Eskolatzeko Batzorde Nagusia eratuko zen, eta aukera ematen zen, halaber, tokiko eskolatzeko batzordeak eratzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 86. artikuluan aurreikusitako terminoetan. Xede horretarako eman zen 40/2011 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa, Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusia eta tokiko eskolatzeko batzordeak sortu eta arautzen dituena.

Aipatutako bi foru dekretu horiei esker zorrotz bete dira Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako eskubide arauemaileak. Nolanahi ere, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak 2/2006 Lege Organikoan sartu dituen aldaketen ondoriozko testu berriak beharrezkotzat jotzen du Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko araudia eguneratzea eta onarpen horri dagokion orotan efizientziarik eta eraginkortasunik handienera buruz joateko bideak ezartzea.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren testu bateratu berriak, II. tituluko III. kapituluaren, ikastetxe publiko eta ikastetxe pribatu itunduetako eskolatzeko arautzen du. Lege horren 84.1 artikuluan ezartzen denez, hezkuntza administrazioek ikasleak ikastetxe publiko eta ikastetxe pribatu itunduetan onartzeko arauak ezarriko dituzte, halako moldez non hezkuntzarako eskubidea, hezkuntzan berdintasun egoeran sartzea, eta guraso edo tutoreen ikastetxea aukeratzeko askatasuna bermatuko diren. Erregulazio horretan beharrezko neurriak hartuko dira ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelakoengatik ez bereizteko eta, beti, hezkuntza-laguntzako berariazko premia duten ikasleak ikastetxeetan modu egoki eta orekatuan banatzeko.

Testuinguru horretan, Hezkuntza Departamentuaren erantzukizuna da bermatzea ikasle guztiek hezkuntzarako sarbidea dutela berdintasun eta kalitateko baldintzetan, bai eta familiek ikastetxea aukeratzeko askatasuna zaintzea ere. Bi eskubide horiek uztartu egin behar dira hezkuntza-laguntzako berariazko premia duten ikasleak modu egoki eta orekatuan eskolatzearekin.

Horretarako, hezkuntzarako sarbidea edo ikastetxearen hautaketa askea bermatzeaz gainera, foru dekretu honekin zenbait mekanismo ezarri nahi dira, ikasleak onartzeko prozesuaren kudeaketaren kalitatea hobetzen laguntzeko. Horretarako, zenbait printzipio arauemaile ezarriko dira, honako hauei buruzkoak: diskriminaziorik eza, berdintasuna arauen aplikazioan, hezkuntza kalitatea, aukera berdintasuna eta gizarte kohesioa. Era berean, aurrera egiten jarraitu nahi da hezkuntza-laguntzako berariazko premia duten ikasleak diru publikoz finantzatutako ikastetxeetan modu orekatuan banatzeari dagokionez, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat, eta horretarako zenbait neurri ezarri dira, hala nola ikasle horientzako ikaspostuak nahitaez erreserbatzea ikastetxe guztietan. Bestalde, aurrera egiten jarraitu nahi da, halaber, hezkuntza plangintzako jarduketetan eskola segregazioa saihesteari eta arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelako arrazoiengatik egoera ahulean dauden ikasleen eskolatzeari dagokienez ere.

Honako hau da foru dekretu honen testuaren osaera: bost kapitulu, sei xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

I. kapituluaren izenburua "Xedapen orokorrak" da. Bertan zehazten dira xedea eta aplikazio eremua, ikasleak onartzeko prozesuaren helburua eta printzipio orokorrak, bai eta hezkuntza programazioari buruzko zenbait alderdi ere.

II. kapituluaren izenburua "Ikasleak onartzeko prozesuan jarraitu behar diren arauak ezartzen dira, bi ataletan banaturik."

Lehen ataletan prozesuaren alderdi orokorrak arautzen dira, eta ikasleak onartzeko eskubideak aurkezteko prozedura azaltzen da. Hezkuntza Departamentuak horretarako gaitzen duen

webgunearen bidez egin beharko da, telematikoki, eta horrela prozesua administrazio elektronikoaren eskaera berriei egokitu zaitzaie. Era berean, ikastetxeen atxikipenaren baldintzak eta ikasleak onartzeko prozesuaren berriazko baldintzak xedatzen dira, bai eta ikastetxeek prozesuan parte hartzeko modua ere, ikaslea onartzearekin, emaitzaren argitalpenarekin eta ikaspostua galtzearekin batera.

Bigarren atalean, bestalde, ikasleak eskolatzeko irizpideak arautzen dira: baremazioari buruzko alderdiak eta puntuazio berdinketak hausteko irizpideak, halakorik dagoenean. Horrez gain, espediente akademikoa balioesteko prozedura ere zehazten da, ikasleak Batxilergoko ikasketetan onartu behar diren kasuetarako, bai eta Lanbide Heziketako erdi edo goi mailako heziketa zikloetara eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketetara sartu nahi duten ikasleentzako. Era berean, bigarren atal honetan, berritasun esanguratsua sartu da. Eskatutako ikastetxe bakoitzerako eskatzaile bakoitza lehiatuko da foru dekretu honetako baremoa aplikatu ondoren lortutako puntu baturatik ateratako puntuazioarekin eta puntuazio horrek zehaztuko du onarpen-zerrendan izanen duen hurrenkera. Hartara, ikaspostua esleituko zaio lehentasun-hurrenkerarik handienarekin ezarri den ikastetxean, hain zuzen ere eskaeran ikastetxeak ezarri diren hurrenkera oinarri harturik onartua izan daitekeen artean.

Ikasleak onartzeko lehentasunezko irizpideak bat datoz Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 84. artikuluan aurreikusitakoaren. Lehentasunezko irizpide guztien artean, garrantzi berezia eman zaio ikastetxean anai-arrebak matrikulatuta egoteari, edozein izanik ere haien kopurua, bai eta bizilekuaren edo guraso edo legezko tutoreen lantokiaren hurbiltasun irizpideari ere, Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxe Publikoen Sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuan definitutako eremuen eta eragin esparruen eta inguru mugakideen eta, orobat, familia-unitatearen per capita errentaren lehentasunezko irizpidearen arabera. Aipatutako bigarren atal horretan, halaber, irizpide osagarriak aplikatzeko aukera aurreikusten da.

III. kapituluak bi atal ditu, onarpen prozesuko berme organoei dagozkienak, zeinek, haien osieran, sustatu beharko baitute gizonen eta emakumeen ordezkariak orekatuaren printzipioa.

Lehen atalean "Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusia" definitzen da, haren atxikipena eta eskumen esparrua, eginkizunak, funtzionamendua eta osiera zehazten dira, eta ikasleentzako eskolatzeari buruzko zenbait alderdi azaltzen dira.

Bigarren atalean, bestalde, tokiko eskolatzeko batzordeak definitzen dira. Horien eginkizunak eta osiera ezartzen dira, bai eta funtzionatzeko moduari eta batzorde horiek sortu eta desegiteko moduari buruzko zenbait gai ere. Foru dekretu honen printzipio arauemaileetako batekin bat etorritik, tokiko eskolatzeko batzorde horiek zainduko dute, batik batik, hezkuntza-laguntzako berriazko premia duten ikasleek presentzia orekatua izatea beren lurralde esparruan funts publikoekin finantzatzeko ikastetxeetan. Tokiko eskolatzeko batzorde horien burua eremuko hezkuntza ikusatzailerik bat izanen da eta, horien eraginkortasuna eta efizientzia hobetze aldera, kide gutxiago izanen dituzte. Edonola ere, errespetatu egingen da ordezkagarritasunaren printzipioa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 86. artikuluan ezarritakoa. Iruñeari eta Iruñerriari dagokionez, sistemaren berandu sartzeko eskabide ugari jasotzen direnez eta erantzunak ahalik eta bizkor eta azkarrena izan behar duenez, tokiko eskolatzeko batzordeei emandako eginkizunak bere gain hartuko ditu eskolatzeko arloko Hezkuntza Departamentuko unitate eskudunak.

IV. kapituluak esaten da hezkuntza-laguntzako berriazko premia duten ikasleentzako eskolatzeko nolako izanen den. Zenbait neurri ezartzen dira ikasle horien eskolatzeko egokia eta orekatua izan dadin. Hartara, aurreinskripzioak eta matrikulek irauten duten bitartean, erreserban gordeko dira ikastetxe publikoetako ikaspostu postu batzuk eta ikastetxe pribatu itunduei baimendutako ikaspostuetako batzuk, hots, ebaluazio arruntetik eta berezitik ondorioztatutakoak. Era berean, ikasgela bakoitzeko ikasle kopurua gehienez ere ehuneko hamar handitzea baimendu daiteke, IV. kapitulu horretan aipatutako ikasleentzako dagokionez. Era berean, Hezkuntza Departamentuak ratio orokorren azpikoak aurreikusten ahalko ditu, eta hezkuntza sistemaren kalitatea eta ekitatea faboratzen duten beste neurri batzuk hartzen ahalko ditu. Aipatutako neurri horiek guztiak ezarri aurretik, Hezkuntza Departamentuak txosten bat egingen du aldiaren behin, eta bertan ikastetxeen egoera zein den azalduko da, hezkuntza-laguntzako berriazko premia duten ikasleentzako dagokionez.

V. kapituluak, ikasleak onartzeko prozesuan ikastetxeek hartutako erabakien eta, dagokionean, tokiko eskolatzeko batzordeek eta Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusiak hartutako akordio eta erabakien kontrako erreklamazioak eta errekursoak lantzen dira. Era berean, ez-betetzei buruzko zenbait alderdi aipatzen dira.

Foru dekretuak sei xedapen gehigarri ditu eta haietan gai hauek lantzen dira: ikasleak beste ikasketa batzuetan onartzea eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak onartzea, itundu gabeko eta Foru Komunitatearen Administrazioaren finantzaketarik jasotzen ez duten ikastetxe pribatuei buruzko zenbait alderdi, eskolatzeko beste egoera lehenetsi batzuk, datu pertsonalen babesa eta administrazioaren beste instantzia batzuekiko lankidetzak.

Foru dekretuaren amaieran biltzen dira bi xedapen iragankor (araudiaren indarraldiari eta prozedura telematikoa ezartzeko aldi baterako araubideari buruzkoak, hurrenez hurren), xedapen indargabetzaile bat (orain artean aplikatzen zen araudia indargabetzekoa) eta bi azken xedapen (bata, dekretua garatzeko ahalmenei buruzko bat, eta bestea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean indarrean jartzeari buruzkoa).

Horiek horrela, Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta Nafarroako Kontseiluaren alde aurreko txostenak ikusirik, Hezkuntzako kontseilariak proposaturik eta Nafarroako Gobernuak 2021eko xxxxxxxaren xx(e)(a)n eginiko bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritik, dekretatzen dut:

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Xedea.*

Foru dekretu honen xedea da ikasleen onarpena arautzea unibertsitatez kanpoko ikasketak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan.

2. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Foru dekretu honen bidez araututako onarpen prozesua aplikatu zaie Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan sartzeko eskaera egiten duten ikasleei, funts publikoekin finantzaturako ikasketa hauetan: Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Arte Plastikoen eta Diseinuko lanbide ikasketetan.

2. Ikasleak onartzeko prozesua, foru dekretu honek arautzen duena, artikuluko lehen apartatuan aipatutako unibertsitatez kanpoko ikasketen maila guztietan aplikatuko da. Ikastetxe publikoetan edo pribatu itunduetan ikasketa horiek egiteko lehenbizikoz sartzen diren ikasleei aplikatuko zaie, eta lehendik eskolatuta dauden ikasleei ere bai, unibertsitatez kanpoko ikasketak amaitu aurretik ikastetxez aldatzeko eskatzen badute.

3. Ikastetxe berean hezkuntza-maila edo kurtso desberdinetan jarraitzeko ez dago onarpen prozesuaren beharrik, salbu eta oinarritzko mailako heziketa zikloetan eta derrigorrezkoaren ondoko etapetan, ikasleak onartzeko berariazko baldintzak izanez gero.

4. Foru dekretu honetan aurreikusi ez diren ikasketa eta modalitateetako onarpenari dagokionez, araudi espezifikoaren arabera jokatu da eta foru dekretu honetan jasotako arauak aplikatuko dira modu osagarrian.

3. artikulua. *Onarpen prozesuaren xedea eta printzipio orokorrak.*

1. Foru dekretu honen funtsezko xedea da bermatzea hezkuntzarako eskubidea, sisteman berdintasunez sartzeko aukera, eta guraso edo tutoreen eta, dagokionean, adinez nagusi diren ikasleen askatasuna ikastetxea hautatzeko. Nolanahi ere, hezkuntza-laguntzako berariazko premia duten ikasleen banaketa ikastetxeen artean egokia eta orekatua izan dadin zainduko da.

2. Hauek izanen dira ikasleak onartzeko prozesuaren printzipio orokorrak:

a) Hezkuntzara sartzeko bermea: ikasle guztiek dute eskubidea oinarritzko, nahitaezko eta doako hezkuntza bermatuko dien ikaspostu bat izateko.

b) Ikastetxea hautatzeko askatasuna: gurasoek edo legezko tutoreek eta, dagokionean, adinez nagusi diren ikasleek eskubidea dute ikastetxe bat hautatzeko, berdintasuneko egoeran, ezartzen diren epeetan. Ikastetxe publiko edo pribatu itundu batean funts publikoen bidez finantzatzen diren

ikaspostuen kopurua eskatzaileena baino txikiagoa denean, ikasleak onartzeko prozesua foru dekretu honetan ezarritako printzipio eta irizpideen arabera egingen da.

c) Diskriminaziorik eza: ezin izanen da diskriminazioko irizpiderik ezarri ikaspostuaren eskatzaileen artean, hezkuntzaren alorrean ematen den oinarrizko legerian ezarritakoaren arabera.

d) Doakotasuna: ikastetxe publikoek edo pribatu itunduek ezin izanen dute dirurik jaso familiengandik doako irakaskuntza ematearen truke, ezin izanen diete fundazio edo elkarteei ekarpenak egiteko betebeharririk inposatu, ez eta irakaskuntzarekin lotutako nahitaezko zerbitzurik ezarri ere, baldin eta ikasleen familiek ekarpen ekonomikoa egin behar badute horien truke. Debeku horretatik kanpo geratzen dira eskolaz kanpoko jardueri dagozkien zenbatekoak, bai eta eskola zerbitzuak ere. Edozein kasutan ere, borondatezkoak izanen dira. Curriculumak garatzeko beharrezkotzat jotzen diren jarduera osagarriak programatu beharko dira eta ez dute arrazoi ekonomikoengatik diskriminaziorik sortuko.

e) Berdintasuna onarpen arauak aplikatzean: Hezkuntza Departamentuak bermatu egingen du ikasleak onartzeko arauak berdintasunez aplikatzen direla funts publikoen bidez finantzaturako ikastetxe guztietan.

f) Hezkuntzaren kalitatea eta aukera berdintasuna: Hezkuntza Departamentuak bermatu egingen du hezkuntza-laguntzako premia berezia duten ikasleak modu egoki eta orekatuan banatuko direla funts publikoen bidez finantzaturako ikastetxe guztien artean.

g) Gizarte kohesioa: Hezkuntza Departamentuak beharrezko neurri zuzentzaileak aginduko ditu arrazoi sozioekonomikoengandik edo bestelakoengatik ikasleen eskola segregazioa saihesteko.

h) Baldintzak betetzea: ikastetxe batean onartua izateko, ezinbestean bete beharko dira ordenamendu juridikoak hezkuntza maila eta kurtso horretan aritzeko eskatzen dituen baldintza akademikoak, adinari dagozkionak edo beste edozein gairekin lotutakoak.

i) Probak egin beharrik gabeko sarbidea: sarbide probek edo azterketek ezin izanen dute baldintzatu ikasleen onarpena foru dekretu honetan zehazten diren ikastetxeetan. Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako heziketa zikloetan eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketetan ikasleak onartzeari dagokionez, kontuan izanen da, ikaslearen espediente akademikoaz gain, indarreko araudian araututako berariazko sarbide proben emaitza.

j) Ikastetxeen hezkuntza proiektua edo proiektu funtzionala errespetatzea: ikasle bat ikastetxe publiko edo pribatu itundu batean matrikulatzen denean, nahitaez errespetatu beharko dira ikastetxearen hezkuntza proiektua edo proiektu funtzionala eta ikastetxearen berezko nortasuna, deusetan ukatu gabe indarreko araudiak ikasleei eta horien familiei aitortzen dizkien eskubideak. Era berean, ikastetxeek beren hezkuntza proiektuaren edo proiektu funtzionalaren inguruko informazioa eman beharko diete, baita berezko nortasunari buruzkoa ere, eskatzen duten gurasoei, legezko tutoreei eta adinez nagusi diren ikasleei.

k) Ikastetxean jarraitzeko bermea: funts publikoen bidez finantzaturako ikastetxe batean onartutako ikasleei bermatzen zaie ikastetxe horretan jarraituko dutela bertan ematen diren eta funts publikoen bidez finantzatzen diren ikasketak amaitu arte, salbu eta aldaketak interesdunen borondatez eginak badira edo ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko araudian ezarritako kasuen aplikazioaren ondoriozkoak, eta deusetan ukatu gabe ikasleak ikastetxean onartu eta bertan jarraitzeko ordenamendu juridikoan eskatzen diren baldintzak bete beharra. Jarraitzeko berme hori atxikitako ikastetxeari ere aplikatuko zaio, hezkuntza etapen arteko aldaketetan.

4. artikulua. *Hezkuntza programazioa.*

1. Hezkuntza Departamentuak erabakiko du funts publikoekin finantzaturako ikastetxeen ikaspostuen programazioa, horrela ikasleen hezkuntzarako eskubidea gauzatzeko. Hori egitean, ikastetxe publikoen kasuan, ikastetxe publikoen sarean ezarritakoa errespetatuko da eta, ikastetxe itunduen kasuan, hezkuntza itunen berariazko arauak.

2. Era berean, ikasleak onartzeko prozesu guztia zuzen egin dadin, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publikoen eta pribatu itunduen eragin eremuak zehaztuko ditu. Horren barnean sartzen da udalerrri edo lurralde esparru bereko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan eragin eremu berak ezartzea, ematen

dituzten ikasketen eta baimenduta dituzten ikaspostuen arabera. Hezkuntza Departamentuak zehaztuko ditu eragin eremu horiek, arau garapenaren bidez.

3. Ikaspostuen eskaintza baliabide publikoak esleitzeko efizientzia irizpideen arabera egingen da.

4. Programazioaren xedea kalitatezko eta ekitatezko hezkuntza erdiestea izanen da, bai eta eskola segregazioko egoerak saihestea ere.

II. KAPITULUA

Ikasleak onartzeko prozesua

1. ATALA

Prozesuaren alderdi orokorrak.

5. artikulua. *Eskaerak.*

1. Gurasoek, legezko tutoreek edo, dagokionean, adinez nagusi diren ikasleek onarpen eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dituzte, Hezkuntza Departamentuak horretarako gaituko duen webgunea erabiliz. Ikastetxeek eskabidea izapidetzen lagunduko diete horretarako laguntza eskatzen duten familiei.

2. Eskatzaile bakoitzak, Hezkuntza Departamentuak ikasturte bakoitzerako ezartzen duen epearen barnean, eskabide bakarra aurkeztuko du, horretarako ezarritako eredu ofiziala erabilita. Eskabide horretan jasoko da ikaspostua zer ikastetxetan eskatzen den, ikastetxeak lehentasun ordenan paraturik. Eskabidea oso-oso bete beharko da, eta nahitaezkoa izanen da behar diren frogagiri guztiak hari eranstea.

3. Ikastetxe batean onartua izateko, ikasleak adinari buruzko baldintzak bete beharko ditu. Gainera, antolamendu juridikoak kasuan kasuko irakaskuntza modalitate edo araubiderako, hezkuntza mailarako, etaparako eta ikasmailarako eskatzen dituen baldintza akademikoak bete beharko ditu.

6. artikulua. *Ikastetxeak atxikitzeko baldintzak eta onarpen prozesuaren berariazko baldintzak.*

1. Etapa desberdinetako ikasketak ematen dituzten beste ikastetxe publiko batzuei atxikita dauden ikastetxe publikoak ikastetxe bakartzat joko dira, foru dekretu honetan ikasleak onartzeko ezarritako irizpideak aplikatzean.

2. Halaber, hezkuntza-etapa bat baino gehiagotan ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxe publikoetan, adin txikienari dagokion etaparen hasieran egingen da hasierako onarpen prozedura.

3. Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko ikastetxe publikoetan, eskatu adina ikaspostu ez dagoenean, onartuak izateko lehentasuna izanen dute ikastetxeak atxikita daukan Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxetik, hurrenez hurren, datozen ikasleek. Ikastetxe pribatu itunduetan antzeko prozedura erabiliko da, baldin eta aipatu ikasketak itunduak badira.

4. Hainbat hezkuntza-etapatako ikasketak ematen dituzten ikastetxe pribatu itunduetan, ikasleak onartzeko hasierako prozedura itunaren xede den eta adin txikienari dagokion ikasturtearen eskaintzaren hasieran aplikatuko da, ikastetxe publikoentzat ezarritako prozeduraren arabera. Era berean, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe pribatu itunduak atxikitzen ahal dizkie beste etapa batzuk emateko baimena duten ikastetxe pribatu itunduei, horien titularrek eskatu ondoren.

7. artikulua. *Ikastetxeen lankidetzaren Hezkuntza Departamentuarekin.*

Ikastetxeek, beren eginkizunak betez, ikasleak onartzeko prozesuan parte hartuko dute, Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen prozedura eta epeen arabera.

8. artikulua. *Onarpena.*

1. Ikastetxeko Eskola Kontseilua da ikastetxe publikoetan ikasleak onartzeko organo eskuduna, foru dekretu honetan eta hori garatzen duen arauzko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

2. Ikastetxe pribatu itunduetan, ikastetxe horien titularren ardura da ikasleen onarpenari buruzko arau orokorrak hertsiki betetzea, eta ikastetxeko Eskola Kontseiluari dagokio onarpen horretan parte hartzea, indarreko araudia betetzen dela bermatuz.

3. Hezkuntza Departamentuak eta ikastetxeetako eskolatze organo edo arduradun eskudunak egokitzat jotzen dituzten agiriak eskatu ahal izanen dizkiete eskatzaileei, alegatzen dituzten egoerak eta inguruabarrak egiaztatzeko.

9. artikulua. *Onarpen prozesuaren emaitza argitaratzea.*

Ikaspostuak esleitzeko prozesuaren emaitza Hezkuntza Departamentuak horretarako gaituko duen webgunean jarriko du jendaurrean eta hartan agertuko dira ikasleak onartzeko zerrendak eta eskatzaileek jarraitu beharreko prozesuaren gaineko informazioa. Era berean, ikastetxe bakoitzeko organo eskudunak informazio bera emanen du argitara, bere ikastetxeko datuei dagokienez.

10. artikulua. *Ikaspostua galtzea.*

1. Jadantik eskolatutako ikasleei dagokienez, eskatutako ikaspostua behin betiko onartzeak berekin ekarriko du matrikula egin duen ikaspostuari lotutako eskubideak automatikoki galtzea, onarpena zein ikasturtean eskatu den hari dagozkion ondorioen egunean.

2. Matrikula ez bada ezarritako epean formalizatzen, onarpen prozesuan esleitutako ikaspostua galduko da.

3. Ikastetxean ez bada arauz ezarritako epeetan sartzen, onarpen prozesuan esleitutako ikaspostua gal daiteke.

2. ATALA

Eskolatze irizpideak

11. artikulua. *Baremoa.*

Foru dekretu honen 6.3 artikuluan ezarritakoa deusetan ukatu gabe, ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan sartzeko eskabide guztiei erantzuteko aski ikaspostu ez dagoenean, onarpen prozesua bigarren atal honetan ezarritako lehentasunezko irizpideen arabera egingen da eta, ezarriko balira, irizpide osagarrien arabera. Irizpide horietako ezeinek ez du izaera baztertzailerik izanen.

12. artikulua. *Lehentasunezko irizpideak eta irizpide osagarriak.*

1. Ikasleak onartzeko prozesua lehentasunezko irizpide hauen arabera egingen da:

- a) Ikastetxe berean anai-arrebak matrikulatuta egotea.
- b) Gurasoen edo legezko tutoreen bizilekua edo lantokia gertu izatea.
- c) Familia-unitatearen per capita errenta.
- d) Ikasleak edo haren guraso edo anai-arrebaren batek desgaitasuna izatea.
- e) Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea.
- f) Guraso edo legezko tutoreek ikastetxean lan egitea.
- g) Legez familia ugariko kide izatea.
- h) Ikaslea familia harreran egotea.
- i) Familia gurasobakarra izatea.
- j) Erditze anizkoitzean sortutako ikasleak.

2. Batxilergoko ikasketetarako, aurreko apartatuan ezarritako irizpideez gain, kontuan hartuko da ikasleen espediente akademikoa.

3. Ikasleak Lanbide Heziketan eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketetan onartzeko prozeduretan, foru dekretu hau garatzeko berariazko araudian ezarritako irizpideetan xedatutakoaren arabera jokatu da.

4. Musikako edo dantzako ikasketa arautuak eta Bigarren Hezkuntzako ikasketak aldi berean egiten dituzten ikasleek lehentasuna izanen dute Bigarren Hezkuntzako ikasketak ematen dituzten ikastetxe batzuetan onartuak izateko; Hezkuntza Departamentuak zehaztuko ditu zein diren ikastetxe horiek, hala dagokionean. Tratamendu bera aplikatuko zaie errendimendu handiko kirol programetan aritzen diren ikasleei.

5. Berariazko beste irizpide batzuk ezarri ahal izanen dira ezaugarri bereziak dituzten ikasketetan sartzeko.

6. Hezkuntza Departamentuak irizpide osagarriak ezartzen ahal ditu ikasleak onartzeko prozesuan aplikatzeko.

13. artikulua. *Ikastetxean anai-arrebak matrikulatuta egotearen lehentasunezko irizpidearen balioespena.*

1. Ikaslea onartzeko eskatu den ikastetxean haren anai-arrebarik badago matrikulatuta, 3 puntu emanen dira, anai-arreben kopurua edozein izanik ere.

2. Eskatzaileak ikastetxean anai-arrebak dituela ulertuko da onarpena eskatzen den ikasturte horretan horiek ikastetxean segitu behar baldin badute.

3. Behar bezala egiaztatutako familia harreran dauden ikasleei aurreko apartatueta aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

14. artikulua. *Ikastetxea bizilekutik edo guraso zein legezko tutoreen lantokitik hurbil egotearen lehentasunezko irizpidearen balioespena.*

1. Bizilekuaren hurbiltasuna balioesteko, ondoko hauen arteko egoera bakar bat hartuko da kontuan:

a) Ikasleen bizilekua uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuan zehaztutako eremuetan baldin badago: 4 puntu.

b) Ikaslearen bizilekua ikastetxearen eragin eremuaren barnean baldin badago: 3 puntu.

c) Ikaslearen bizilekua ikastetxearen eragin eremuaren mugakidea baldin bada: 1 puntu.

d) Ikaslearen bizilekua ez badago aurreko egoeretako batean: 0 puntu.

2. Eskabidean, bizilekuaren hurbiltasunaren ordez ikaslearen guraso edo legezko tutoreen baten lantokiaren hurbiltasuna hautatu ahal izanen da irizpide gisa.

15. artikulua. *Familia-unitatearen per capita errentaren lehentasunezko irizpidearen balioespena.*

1. Familia-unitatearen per capita errenta ondoko baremo honen arabera balioetsiko da:

a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortzeneko likidazio oinarria(k) zati aitortzen agertzen diren familia-unitateko kideen kopurua (aitortzailea, ezkontidea eta, PFEZaren foru araudian ezarri bezala, kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak). Emaizta lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia edo txikiagoa bada, puntuazio hau emanen da: 3 puntu.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortzeneko likidazio oinarria(k) zati aitortzen agertzen diren familia-unitateko kideen kopurua (aitortzailea, ezkontidea eta, PFEZaren foru araudian ezarri bezala, kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak). Emaizta lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia baino handiagoa eta soldata horren hiru laurdenak edo txikiagoa bada, puntuazio hau emanen da: 2 puntu.

c) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortzeneko likidazio oinarria(k) zati aitortzen agertzen diren familia-unitateko kideen kopurua (aitortzailea, ezkontidea eta, PFEZaren foru araudian ezarri bezala, kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak). Emaizta lanbide arteko gutxieneko soldataren hiru laurdenak baino handiagoa eta soldata hori bera edo txikiagoa bada, puntuazio hau emanen da: 1 puntu.

d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpeneko likidazio oinarria(k) zati aitortpenean agertzen diren familia-unitateko kideen kopurua (aitortzailea, ezkontidea eta, PFEZaren foru araudian ezarri bezala, kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak). Emaiza lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa bada, puntuazio hau emanen da: 0 puntu.

2. Familia-unitatearen per capita errentari buruzko irizpidearen balioespena borondatezkoa da. Irizpide hori balioesteko eskatzen denean, errenta frogatuko da (bestela ez), dagozkion puntuak lortu ahal izateko.

16. artikulua. *Ikasleak edo haren guraso edo anai-arrebaren batek desgaitasuna izatearen lehentasunezko irizpidearen balioespena.*

1. Ikaspostua eskatzen duen ikasleak desgaitasuna badu, ofizialki egiaztatua, 2 puntu emanen dira.

2. Desgaitasuna ikaspostua eskatzen duen ikaslearen gurasoek edo anai-arrebek dutenean, 0,5 puntu emanen dira, edozein izanik ere zenbat diren eta betiere ofizialki egiaztatzen bada.

17. artikulua. *Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatearen lehentasunezko irizpidearen balioespena.*

Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatearen egoera balioetsiko da bi inguruabarrak edo bietako bat gertatzen bada: 1 puntu.

18. artikulua. *Guraso edo legezko tutoreek ikastetxean lan egitearen lehentasunezko irizpidearen balioespena.*

Guraso edo legezko tutoreen batek ikastetxean lan egiten badu puntuazio bakarra izanen dute, hots, 0,8 puntu.

19. artikulua. *Legez familia ugaria izatearen lehentasunezko irizpidearen balioespena.*

Legez familia ugariko kide izatea 0,8 punturekin balioetsiko da.

20. artikulua. *Ikaslea familia harreran egotearen lehentasunezko irizpidearen balioespena.*

Ikaslea familia harreran badago, 0,8 puntu emanen dira.

21. artikulua. *Guraso bakarra izatearen lehentasunezko irizpidearen balioespena.*

Guraso bakarreko familiako kide bada ikaslea, 0,8 puntu emanen dira.

22. artikulua. *Erditze anizkoitzetik sortutako ikaslea izatearen lehentasunezko irizpidearen balioespena.*

Erditze anizkoitzetik sortutakoa bada ikaslea, 0,8 puntu emanen dira.

23. artikulua. *Espediente akademikoaren balioespena, Batxilergoko ikasketak, Lanbide Heziketako erdi edo goi mailako zikloak eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketak egin nahi dituzten ikasleak onartzeko.*

1. Batxilergoko ikasketetan sartuko diren ikasleak onartzerakoan, kontuan hartu beharko da Batxilergoan sartzeko ezarritako ikasketen espediente akademikoa, indarrean dagoen araudiaren arabera. Ikasketa horietan lortutako batez besteko nota hartuko da kontuan, eta indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera kalkulatu da. Batez besteko nota foru dekretu honetan araututako gainerako irizpideen balioespenetan lortutako puntuazioari batuko zaio.

2. Lanbide Heziketako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketetan sartuko diren ikasleak onartzerakoan, kontuan hartu beharko da ikasketa horietan erdi edo goi mailako heziketa zikloetan sartzeko ezarritako ikasketen espediente akademikoa, indarrean dagoen araudiaren arabera. Ikasketa horietan lortutako batez besteko nota hartuko da kontuan, eta indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera kalkulatu da. Batez besteko nota foru dekretu hau garatzeko ematen den berariazko araudian ezarritako onarpen irizpideetan ezarritakoaren arabera aplikatuko da.

Ikasketa horietan ikasleak sarbide probaren bidez onartzen direnean, espediente akademikoaren batez besteko notaren orde behar diren sarbide probetan lortutako kalifikazioa erabiliko da.

24. artikulua. *Puntuazioa, berdinketak eta ikaspostua esleitzea.*

1. Eskatutako ikastetxe bakoitzerako, eskatzaile bakoitza lehiatuko da foru dekretu honetan ezarritako baremoa aplikatuzetik lortutako puntuen baturatik ateratako puntuazioarekin, eta puntuazio horren arabera hurrenkeran ezarriko da onarpen zerrendan.
2. Eskerari ikastetxeak zein hurrenkeratan ezarri diren kontuan hartuz, eskatzaileari ikaspostua esleitzeko zaio onarturik gertatuko litzatekeen ikastetxeen artean lehentasun-hurrenkerarik handienarekin adierazitako ikastetxean.
3. Berdinketarik badago, irizpide hauek aplikatuko dira, ordena honetan, behar bezala egiaztatuz:
 - a) Ikastetxe berean anai-arrebak matrikulatuta egotea.
 - b) Gurasoen edo legezko tutoreen bizilekua edo lantokia hurbil izatearen atalean puntuazio handiagoa lortzea.
 - c) Familia-unitatearen per capita errentagatik puntu gehien lortu dituenak.
 - d) Ikasleak edo haren guraso edo anai-arrebaren batek desgaitasuna izatearen atalean puntuazio handiagoa lortzea.
 - e) Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea.
 - f) Guraso edo legezko tutoreek ikastetxean lan egitea.
 - g) Legez familia ugari kide izatea.
 - h) Ikaslea familia harreran egotea.
 - i) Familia gurasobakarra izatea.
 - j) Erditze anizkoitzean sortutako ikasleak.
 - k) Batxilergoko ikasketen kasuan, espediente akademikoaren batez besteko notan puntuaziorik handiena.
4. Aurreko apartatuan aipatutako berdinketa hausteko irizpideak ordena horretan aplikatuko dira, harik eta berdinketa hautsi arte.
5. Irizpide osagarriak erabiliko dira, dagokionean, lehentasunezko irizpideak nahikoa izan ez direnean ikastetxean ikasleak onartzeko lehentasunak ezartzeko.
6. Berdinketa hausten ez bada, zozketa publikoa egingen du ikasleak onartzearen arloan eskuduna den Hezkuntza Departamentuko organoak. Betiere aurretiaz jakinaraziko da ekitaldi hori zein toki, egun eta ordutan egingen litzatekeen.
7. Lanbide Heziketan eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketetan sartzeko berdinketak hausteko, ikasketak horietan ikasleak onartzeko berezitasunak kontuan hartuko dituen zozketa publikoa egingen da.

III. KAPITULUA

Onarpen prozesuko berme organoak: Eskolatzeko batzordeak

1. ATALA

Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusia.

25. artikulua. *Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren definizioa, atxikipena eta eskumenen esparrua.*

1. Nafarroako Eskolatzeko Batzar Nagusia Hezkuntza Departamentuko organoa da, ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko prozedura zuzen aplikatzearen ardura daukana. Batzar hori eskolatzeko gainerako eskumenak dituen Hezkuntza Departamentuko zuzendaritza nagusiari atxikiko zaio.

2. Nafarroako Eskolatzeko Batzar Nagusiaren eskumen esparruan sartzen da ikasleen onarpena unibertsitatez kanpoko ikasketak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan.

3. Nafarroako Eskolatzeko Batzar Nagusiari dagokio ikasleen eskolatzeko koordinatzea eta gainbegiratzea, deusetan galarazi gabe Hezkuntza Departamentuak dituen eskumenak eta foru dekretu honek tokiko eskolatzeko batzardeei esleitzen dizkien eskumenak. Nafarroako eskolatzeko batzarde nagusiak koordinatu eta gainbegiratu du Tokiko Eskolatzeko Batzardeen funtzionamendua.

26. artikulua. *Nafarroako Eskolatzeko Batzarde Nagusiaren eginkizunak.*

Nafarroako Eskolatzeko Batzarde Nagusiak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Ikasleak onartzeko prozesua eta sortzen diren tokiko eskolatzeko batzarde guztien jarduketako koordinatzea eta, orobat, gainbegiratzea ikasleak onartzeko prozesuaren baremazioa eta foru dekretu honetan ezarritako lehenetsitako irizpideen eta, dagokionean, irizpide osagarrien aplikazio egokia.

b) Eskolatzeko ikastetxeetan ikasposturik lortu ez duen ikasleak eskolatzeko irizpideak betetzen direla gainbegiratzea, deusetan galarazi gabe foru dekretu honek Tokiko Eskolatzeko Batzardeei esleitzen dizkien eginkizunak.

c) Hezkuntza-laguntzaren arloan berriazko premiak dituzten ikasleak eta egoera sozioekonomiko ahulean edo bestelako egoeraren batean dauden ikasleak eskolatzeko irizpideak betetzen direla gainbegiratzea.

d) Ikastetxez aldatzeko epe kanpoko eskaerak baimentzea, behar bezala justifikatutako ohiz kanpoko inguruabarrak daudenean.

e) Hezkuntza Departamentuak planifikatutako hezkuntza eskaintza ezagutzea.

f) Ikastetxei eta Tokiko Eskolatzeko Batzardeei argibideak eta aholkuak ematea foru dekretu honen edukia gainean eta, orobat, ikasleen onarpen prozesua arautzeko onesten den araudiaren gainean.

g) Bere eskumen esparruaren barnean eskolatzeko arloko zuzendaritza nagusi eskudunak esleitzen dion beste eginkizun oro, hezkuntzari buruzko oinarriko legerian ezarritakoaren esparruan.

27. artikulua. *Nafarroako Eskolatzeko Batzarde Nagusiaren funtzionamendua.*

Nafarroako Eskolatzeko Batzarde Nagusiaren funtzionamendua hau izanen da:

a) Hezkuntza Departamentuak ezarritako dituen Nafarroako Eskolatzeko Batzarde Nagusiaren funtzionamendurako behar diren baliabideen zuzkidura eta haren laneko egoitza.

b) Nafarroako Eskolatzeko Batzarde Nagusiko buruari dagokio ohiko batzarretarako eta batzar berezietarako deia egitea.

c) Nafarroako Eskolatzeko Batzarde Nagusia behar adina aldiz bilduko da beren eginkizunak zuzen eta eraginkortasunez gauzatzeko. Edonola ere, bi bilkura egingen dira ezinbestean: bat ikasturtearen hasieran eta beste bat ikasturtea amaitzean.

d) Foru dekretu honetan Nafarroako Eskolatzeko Batzarde Nagusiaren arloan ezarri ez den orotarako, honako arau hauetan kide anitzeko organoentzat ezarritakoa aplikatuko da: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legea eta Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.

28. artikulua. *Nafarroako Eskolatzeko Batzarde Nagusiaren osaketa.*

1. Nafarroako Eskolatzeko Batzarde Nagusiak kide hauek izanen ditu:

a) Batzardeko burua: eskolatzeko arloan eskumena duen zuzendari nagusia.

b) Batzordeko kideak:

- Hezkuntzako ikuskapen arloan eskumena duen zerbitzuko zuzendaria.
- Aniztasunarekiko arretaren arloan eskumena duen zerbitzuko zuzendaria.
- Lanbide heziketa antolatze arloan eskumena duen zerbitzuko zuzendaria.
- Hezkuntza itunen arloan eskumena duen zerbitzuko zuzendaria.
- Hezkuntza Departamentuan orientazio arloan eskuduna den unitateko funtzionario bat.
- Hezkuntza Departamentuan inklusioaren arloan eskudun den unitateko funtzionario bat.
- Hezkuntza Departamentuko idazkari tekniko nagusia.
- Udal ordezkari bat, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak hautatutakoa.
- Ikastetxeetako bi zuzendari: bata, ikastetxe publikoetako ordezkaria, irakaskuntza publikoko zuzendarien elkarteak hautatua; bestea, irakaskuntza itunduko ordezkaria, sektoreko erakunde patronalek hautatua.
- Erakunde sindikaletako bi ordezkari: bata, irakaskuntza publikokoa, unibertsitatez kanpoko irakasleen batzordeak hautatua; eta bestea, irakaskuntza itundukoa, sektoreko sindikatuek hautatua.
- Ikasleen gurasoen bi ordezkari: bata, irakaskuntza publikokoa, eta bestea, irakaskuntza itundukoa, hurrenez hurren, ikastetxe publikoetan eta ikastetxe pribatu itunduetan ordezkari gehien dituzten federazioek hautatuak.

c) Idazkaria: Eskolatze Ataleko koordinatzailea, hitzarekin eta botoarekin jardunen duena.

2. Batzordeko kideak hautatu behar dituzten entitateek edo erakundeek eta Hezkuntza Departamentuak, Foru Komunitateko Administrazioari dagokienez, kideen ordezkariak ere hautatuko dituzte.

3. Eskolatze Batzorde Nagusiko kideak eta horien ordezkariak eskolatzearen arloan eskudun den zuzendaritza nagusiaren ebazpen bidez izendatuko dira ikasturte bakoitzaren hasieran, eta haren osaketan gizonen eta emakumeen arteko ordezkariak orekatuaren printzipioa sustatuko da.

4. Foru dekretu honetan Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusiaren arloan ezarri ez den orotarako, honako arau hauek kide anitzeko organoentzat ezarritakoa aplikatuko da: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.

29. artikulua. Ikasleak eskolatzea.

Hezkuntza Departamentuak, bere barneko organoen bidez, ikasleak eskolatuko ditu, Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusiak ezarritako irizpideen eta zuzentarauen arabera.

2. ATALA

Tokiko eskolatze batzordeak

30. artikulua. *Tokiko eskolatze batzordeen befinizioa.*

1. Tokiko Eskolatze Batzordea ikastetxe publikoak edota ikastetxe pribatu itunduak dauden lurralde esparru batean eratzen den organoa da, ikasleen onarpen prozesuaren gainean argibideak eta aholkua emateko, eta prozesu hori gainbegiratzeko, batzordearen eskumen esparruan.

2. Tokiko eskolatze batzordeek zainduko dute, batik bat, hezkuntza laguntzako berariazko premia duten ikasleek presentzia orekatua dutela beren jarduketan esparruan funts publikoekin finantzatutako ikastetxeetan.

31. artikulua. Tokiko eskolatze batzordeak sortzea eta desegitea.

1. Foru dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Lizarrako, Tafallako eta Tuterako tokiko eskolatze batzordeak sortzen dira.
2. Iruñeari eta Iruñerriari dagokienez, sisteman tokiko eskolatze batzordeei emandako eginkizunak bere gain hartuko ditu eskolatzearen arloko Hezkuntza Departamentuko unitate eskudunak.
3. Hezkuntzaren arloan eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez sortuko dira tokiko eskolatze batzorde gehiago, dagokionean, eta prozedura beraren bidez deseginen dira lehendik daudenak.

32. artikulua. Tokiko eskolatze batzordeen eginkizunak.

1. Tokiko eskolatze batzordeen xedea da ikastetxeetan sartzeko eta eskolatzeko aukera berdintasuna sustatzea eta bermatzea, bere eskumen esparruko ikastetxeetan, foru dekretu honen aplikazio eremuan ezarritako mailetan ikasten duten ikasle guztientzat, bereziki hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzat eta arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelako arrazoiengatik egoera ahulean dauden ikasleentzat.

2. Tokiko eskolatze batzordeen eginkizunak honako hauek dira:

a) Eskatzen duten pertsonen aholku ematea, eta informazioa ematea hezkuntza sistemari eta derrigorrezko irakaskuntzaren doakotasunari buruz, ikastetxeei eta haien ezaugarriei eta ikaspostuen kopuruari buruz eta, orobat, Foru Komunitateko ikastetxeetan, eta bereziki haien lurralde eremuak, ikasleak onartzeko prozesuari buruz.

B) Ikasleak onartzeko prozesua eta hura erregulatzeko arauak betetzea, bereziki arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelako arrazoiengatik ikasleak segregatzea saihestekoak.

c) Ikastetxe guztiek hezkuntzaren laguntzaren arloan berariazko premiak dituzten ikasleak eta arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelako arrazoiengatik egoera ahulean dauden ikasleak ekitatiboki eskolatzeko lagun dezaten laguntzea. Horretarako, beste jarduketak batzuen artean, ikasle horien eskolatzeko ahalik eta baldintza onenetan egin dadin egokienak iruditzen zaizkien irizpideak proposatzen ahalko dizkiote Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusiari.

d) Ezarritako epeetatik kanpo jasotzen diren eskolatze eskaerak kudeatzea. Eginkizun hori betetzeko, jarduera hauek eginen dituzte:

- Ikaspostua eskatzen duten gurasoengandik, legezko tutoreengandik eta, dagokionean, adinez nagusi diren ikasleengandik hezkuntza eta gizarte esparruetako informazioa jasotzea.

- Ikasleen gainean jasotako datuak balioestea, esleipen-proposamena prestatzea lurralde esparruko ikastetxeetan eskolatzearen gainean dagoen informazioaren arabera, eta, familiek esan beharrekoa entzun ondoren, familiak aukeratutako ikaspostua proposatutako artekoetatik esleitzea.

- Ikaspostuaren esleipenaren berri ematea gurasoei, legezko tutoreei eta, dagokionean, adinez nagusi diren ikasleei, bai eta dagokion ikastetxeari ere.

e) Hala denean, Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusiak agintzen dien beste edozein, hezkuntzaren arloko oinarritzko legerian ezarritakoaren esparruan.

3. Ikastetxeek behar duten informazioa eta dokumentazioa emanen dizkiete tokiko eskolatze batzordeei, beren lana egin dezaten. Halaber, une oro aholkua eskatzen ahal diote Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusiari.

4. Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusiak gainbegiratu du tokiko eskolatze batzordeen lana eta horren berri emanen dio eskolatzearen arloan eskudun den zuzendaritza nagusiari.

33. artikulua. Tokiko eskolatze batzordeen osaera.

1. Tokiko eskolatze batzordeen osaera honako hau izanen da:

a) Batzordeko burua: eskualdeko hezkuntza ikuskatzailea, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko zuzendariak proposatutakoa.

b) Batzordeko kideak:

- Herriko edo eskolatzeko eremuko ikastetxe publiko bateko zuzendaria, dagokion lurralde eremuko zuzendariak proposatutakoa.

- Herriko edo eskolatzeko eremuko ikastetxe pribatu itundu bateko zuzendaria, sektoreko erakunde patronalek proposatutakoa.

- Herriko edo eskolatzeko eremuko ikastetxeetako irakasleen ordezkari bat, erakunde sindikalek proposatutakoa.

- Herriko edo eskolatzeko eremuko ikastetxeetako ikasleen gurasoen ordezkari bat, ikastetxe horietako guraso elkarteek proposatutakoa.

- Herriko edo eskolatzeko eremuko gizarte zerbitzuetako pertsona bat, dagokien instituzio edo erakundeek proposatutakoa.

Batzordeko idazkaria ikastetxe publikoko zuzendaria izanen da.

2. Tokiko eskolatzeko batzordeetako kideak eta horien ordezkariak eskolatzeko arloan eskudun den zuzendaritza nagusiaren ebazpen bidez izendatuko dira ikasturte bakoitzaren hasieran, eta haren osararen sustatuko da gizonen eta emakumeen artean ordezkariak orekatuaren printzipioa.

34. artikulua. Tokiko eskolatzeko batzordeen funtzionamendua.

1. Hezkuntza Departamentuak ezarriko ditu Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren funtzionamendurako behar diren baliabideen zuzkidura eta haren laneko egoitza.

2. Tokiko Eskolatzeko Batzordeko buruari dagokio ohiko batzarretarako eta batzar berezietarako deia egitea.

3. Tokiko eskolatzeko batzordeak behar adina aldiz bilduko dira beren eginkizunak zuzen eta eraginkortasunez gauzatzeko. Edonola ere, bi bilkura egiten dira ezinbestean: bat ikasturtearen hasieran eta beste bat ikasturtea amaitzean.

4. Ikasleen gurasoek edo legezko tutoreek, ikasturte bakoitzerako araudian ezarritako eskolatzeko epeetatik kanpo ikaspostuak eskatzeko, telematikoki egiten ahalko dute eskaera Hezkuntza Departamentuak horretarako gaitutako webgunean.

5. Tokiko Eskolatzeko Batzordeak jasoko du ikasleen aurreko eskolatzeko gainerako informazioa, balego, ikaspostuen proposamen bat prestatuko du eskatutako eskolatzeko aukerekin bat etorriko dena, hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen presentzia orekatua bereziki zainduko eta, orobat, gurasoek, legezko tutoreek edo, kasua bada, adinez nagusi diren ikasleek aukeratutako ikaspostua esleituiko du proposatutako ikaspostuen artean.

6. Tokiko Eskolatzeko Batzordeak esleitutako ikastetxeari bidaliko dio idatzizko eskolatzeko proposamena, bertan matrikulazioa formaliza dezaten.

7. Esleitutako ikaspostuarekin ados ez badaude, interesdunek alegazioak aurkezten ahal dituzte Tokiko Eskolatzeko Batzordearen aurrean.

8. Eskolatzeko kasu jakin bat aztertu ondoren, Tokiko Eskolatzeko Batzordeari haren eskumenetatik at dauden arazoak planteatzen bazaizkio, gaia Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusira bidaliko du, kasua epaitu ondoren behar diren erabakiak har ditzan. Ondorio horietarako, Tokiko Eskolatzeko Batzordeko ordezkariak deitzen ahalko ditu.

9. Foru dekretu honetan tokiko eskolatzeko batzordeen funtzionamenduaren arloan ezarri ez den orotarako, honako arau hauetan kide anitzeko organoentzat ezarritakoa aplikatuko da: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legea eta Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.

Hezkuntza-laguntzako berariazko premia duten ikasleen eskolatzeara

35. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

1. Hezkuntzaren kalitatea, gizarte kohesioa eta aukera berdintasuna ziurtatzeko, Hezkuntza Departamentuak bermatuko du hezkuntza-laguntzako berariazko premia duten ikasleak modu egoki eta orekatuan eskolatzen direla, eta beharrezko neurriak hartuko ditu ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelako arrazoiengatik ez segregatzea saihesteko.

2. Kapitulu honetan aipatzen diren neurriak hartzeko, kontuan hartuko dira dagokion eremuko baldintza sozioekonomikoak eta demografikoak, bai eta hezkuntza-laguntzako berariazko premia dakarten ikaslearen baldintza pertsonalak edo familiakoak ere.

36. artikulua. *Ikasleen banaketa orekatua.*

1. Hezkuntza laguntzarako berariazko premia duten ikasleak eskolatzeko eta horien hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuei baimendutako ikaspostuen zati bat, hots, ebaluazio arruntetik eta ezohikotik ondorioztatutako ikaspostuetatik, gordetzen ahal izanen diete, aurrez izena emateko eta matrikulatzeko aldia amaitu arte, honela:

a) Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen ikasmila eginen duten ikasleei dagokienez, erreserba gordeko da aurreinskripzioaren eta matrikularen aldia bukatu arte.

b) Haur Hezkuntzako bigarren zikloko bigarren ikasmilatik Lehen Hezkuntzako seigarren ikasmila bitarte eginen duten ikasleei dagokienez, erreserba gordeko da ebaluazio arruntaren aldia bukatu arte.

c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa eginen duten ikasleei dagokienez, erreserba gordeko da ebaluazio bereziaren aldia bukatu arte.

Era berean, Hezkuntza Departamentuak baimena eman dezake ikasgela bakoitzean gehienez sar daitezkeen ikasleen kopurua ehuneko hamar handitzeko, dela berandu sartutako ikasleen eskolatzeara-premia berehalakoei erantzuteko, dela aurreinskripzioaren eta matrikularen aldian ezarritako epetik kanpo familia-unitatea lekualdatzeak sortutako beharkizunengatik, lekualdatze hori gertatu bada guraso edo legezko tutoretako edozeinen mugikortasun behartuagatik edo ikaslea familian hartzeko neurri bati hasiera emateagatik.

2. Hezkuntza-laguntzako berariazko premia duten ikasleen banaketa orekatua bermatzeko, Hezkuntza Departamentuak aldian behin prestatuko du hezkuntza-laguntzako berariazko premia duten ikasleen indizea ikastetxeka, gutxienez alderdi hauek jasoz: hezkuntza-laguntzako berariazko premia dutenen baldintza pertsonalak, curriculum atzerapena eta hartutako hezkuntza neurriak.

3. Indize hori kontuan hartuko da ezaugarri horiek dituzten ikasleak ikastetxe publiko eta pribatu itundu bakoitzean eskolatzeko, artikuluko honen 1. apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako.

4. Indize hori aintzat harturik, Hezkuntza Departamentuak dena delako hezkuntza mailarako finkatuta daudenak baino ikasle ratio txikiagoak ezartzen ahal ditu, dagokionean.

5. Era berean, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza sistemaren kalitatea eta ekitatea sustatzeko beste neurri batzuk hartzen ahal ditu.

V. KAPITULUA

Erreklamazioak, errekursoak eta ez-betetzeak

37. artikulua. *Erreklamazioak eta errekursoak.*

Ikasleak onartzeko prozesuko erabakien aurka, foru dekretu honetan edo foru dekretua garatzen duen araudian ezarritakoa betetzen ez badute, eta, dagokionean, tokiko eskolatzeara batzordeek eta Nafarroako Eskolatzeara Batzorde Nagusiak hartutako akordioa erabakien aurka, erreklamazioa aurkeztzen ahalko da erabaki horiek hartu dituen organoaren aurrean, bost egun balioduneko epean, kasuan kasuko egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita. Edonola ere, organo horrek hartzen duen erabakiaren aurka gora jotzeko errekursoa jartzen ahalko da, hezkuntzaren arloan eskudun den kontseilariari zuzendua, hilabeteko

epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita; errekurso horri buruzko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio bideari.

38. artikulua. *Ez-betetzeak.*

1. Ikastetxe publikoetan ikasleak onartzeari buruzko arauak betetzen ez badira, dagokion administrazio prozedura abiarazten ahalko da, balizko erantzukizunak zehazte aldera.

2. Ikastetxe pribatu itunduek ez badituzte betetzen ikasleak onartzeari buruzko arauak, ikastetxeko titularrari egotzitako ituna ez betetzeko kausa izanen da, Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 62. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria. *Beste ikasketa batzuetako onarpena.*

1. Lanbide Heziketako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketetan onartzeko kontuan hartuko dira foru dekretu honetan xedatutakoa aplikatzeetik ondorioztatutakoa, ikasketa horietako bakoitza arautzen duen oinarritzko legeria eta, orobat, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, kasuan kasu, ezartzen duen berariazko araudia.

2. Foru dekretu honen aplikazio eremutik kanpoko ikasketetako onarpena ikasketa horietako bakoitza arautzen duen oinarritzko legeriaren arabera eginen da, bai eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak ezartzen duen berariazko araudiaren arabera ere, halakorik denean.

Bigarren xedapen gehigarria. *Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen onarpena.*

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen onarpenari dagokionez, hezkuntza laguntzako berariazko premia duten ikasleentzat foru dekretu honetan xedatutakoaz gain, horien berariazko araudian ezartzen dena beteko da.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Foru Komunitatearen Administrazioaren finantzaketarik jasotzen ez duten itundu gabeko ikastetxe pribatuak.*

Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 25. artikuluan ezarritakoarekin bat, itundu gabeko ikastetxe pribatuak, horien finantzaketaren zati bat ere ez badator Foru Komunitatearen Administrazioetik jasotako funtsetatik, autonomia izanen dute ikasleak onartzeko irizpideak ezartzeko eta prozesua xedatzeko.

Laugarren xedapen gehigarria. *Eskolatzeko lehentasunezko beste egoera batzuk.*

1. Foru dekretu honetan jasotakoaz gain, guraso edo legezko tutoreetako baten bizileku edo lantokiari dagokion eskolatzeko eremuan lehentasuna izanen dute ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan eskolatzeko diren ikasleek, baldin eta horren arrazoia bada familia-unitatea bizilekuz aldatu dela guraso edo legezko tutoreetako edozeinen mugikortasun behartuagatik, edo bizilekuz aldatu behar izan dutela genero indarkeriako ekintzen ondorioz.

2. Era berean, genero indarkeriako ekintzen edo eskola jazarpenaren ondorioz ikastetxez aldatu behar duten ikasleak berehala eskolatzeko direla bermatuko da. Era berean, Hezkuntza Departamentuak erraztasunak emanen ditu ikastetxeek arreta berezia eman diezaieten ikasle horiei.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Datu pertsonalak babestea.*

Ikasleen, gurasoen eta legezko tutoreen datu pertsonalak eskuratu eta tratatzean, datu horiek ikastetxeek elkarri lagatzean, eta datu horien segurtasuna eta konfidentziaztasuna bermatzeko neurriak hartzean, datu pertsonalak babesteko indarreko legerian xedatutakoaren arabera jokatuko da.

Seigarren xedapen gehigarria. *Elkarlanean aritzea beste administrazio instantzia batzuekin.*

Hezkuntza Departamentuak Administrazioako beste instantzia batzuei laguntza eskatzen ahalko die ikasleak onartzeko prozesuan interesdunek eta ikastetxeek ematen dituzten datuak egiaztatzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen xedapen iragankorra. *Araudiaren indarraldia.*

Foru dekretu honek indarra hartu aurretik abiatu diren ikasleak onartzeko prozesuetan, hasi ziren unean indarrean zen araudia aplikatuko da.

Bigarren xedapen iragankorra. *Prozedura telematikoa ezarri arteko araubide iragankorra.*

Foru dekretu honen 5., 9. eta 34.4 artikuluetan aipatutako webgunea erabilgarri ez dagoen artean, Hezkuntza Departamentuak egokitzen jotzen dituen behar adina kanal ezartzen ahalko ditu, ikasleak onartzeko prozesua egoki gauzatzen dela bermatzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Indargabetutako arauak.*

Indargabetuta geratzen dira 31/2007 Foru Dekretua, apirilaren 2koa, unibertsitatez kanpoko ikasketak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituenak; eta 40/2011 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa, Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusia eta Tokiko Eskolatzeko Batzordeak sortu eta arautzen dituenak, bai eta dekretu honetan xedatutakoaren aurka doazen eta maila bera edo apalagoa duten beste xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehena. *Erregelamendu bidez garatzea.*

Hezkuntzaren arloko eskumena duen kontseilariari baimena ematen zaio behar diren xedapen guztiak eman ditzan foru dekretu hau garatzeko.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarra hartzea.*

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.